

75,1 milioi euroko irabazi garbia lortu du lehen hiruhilekoan

Banku negozioaren oinarrizko sarrerek % 21,6 igoarazi dute Kutxabanken emaitza

- Banku negozioaren 'core' diru-sarrerek % 7,3 hazi dira, zerbitzu eta produktuen kontratazioak bultzatuta
- Merkatuan hegazkortasun handia nagusi den testuinguruan, harpidetza garbi gehien lortu dituen hirugarren Taldea izan da
- Kreditu-inbertsio produktiboa % 6 hazi da, eta berankortasun-tasak hobetzen jarraitu du, alorreko tasa onenetakoa izanik, % 1,80koa
- Zalantzako aktiboen bolumen osoa 30 milioi euro baino gehiago murriztu da
- Ustiapen-gastuei eutsi zaie, eta kredituekin eta higiezinekin lotutako hornidura zorrotzak egiten jarraitu da

2022ko apirilaren 28a. Kutxabank Taldeak **75,1 milioi** euroko irabazi garbiarekin itxi du 2022ko lehen hiruhilekoa, iazkoaren aldean **% 21,6** hazita.

Ukrainako gerrak erabat baldintzatu duen ingurunean lortu da emaitza, eta horrek pandemiaren ondoren iragarrita zegoen susperraldi aurreikuspena okerragotu du, krisiaren sakontasunari buruzko ziurgabetasuna handia baita.

Epe laburrean, ekonomiaren erronkarik handiena hornikuntza-katean sortzen ari den prezioen igoerari erantzutea izango da, horren erakusle da inflazioak dagoeneko % 10 inguruan itxi duela hiruhilekoa.

Inflazio-egoera horri aurre egiteko, Europako Banku zentrala interes tipoak igotzeko politikak sustatzen hasi da. Iragarpenen arabera, irizpide hau nagusituko da aurrerantzean, tasa negatiboen epealdiari amaiera emanez.

Ingurune konplexu honetan, Kutxabanken merkataritza-jarduerak 2022. urtearen hasierarako ezarritako helburuak lortu ditu, hein handi batean 'core' negozioaren sendotasunari esker eta, besteak beste, interesen marjinak uste baino hazkunde handiagoa izan ostean.

Banku-sarrera errepikakorak % 7,3 hazi dira eta 2019ko martxoan, pandemiaren aurreko azken urtean, lortutakoen gainetik daude. Zerbitzuek, balantzetik kanpoko

baliabideek eta aseguruak sortutako diru-sarrerek emaitzen konturako egiten duten ekarpenak interes-marjinaren gaintik jarraitzen dute, banku-negozio osoaren % **53** osatzen baitute.

Merkatuan hegazkortasun handia eta hipoteka-merkatuan lehia bizia nagusi diren honetan, bere merkatu-kuotak sendotzea lortu du **balantzetik kanpoko funtsen** hazkunderari eta **hipoteka-kredituak, mailegu pertsonalak eta aseguruak** bezalako oinarrizko banku produktuen kontratazioari esker.

Negozioaren bilakaera positiboari eraginkortasunaren hobekuntza eta kostuen murrizketa gehitu zaizkio, izan ere, ustiapen gastuak % **1,5** hazi dira. Gainera, maileguen eta higiezinaren gaineko hornidura maila zorrotzari eutsi zaio. Atal honetara **56 milioi** euro bideratu dira, 2021eko lehen hiruhilekoan egin ziren zuzkidurak gaindituz.

Online aritzeko geroz eta ohituagoa dagoen bezero-profilari erantzuten jarraitu du Kutxabankek, eta honela zerbitzu hau erabiltzen duten bezeroen kopuruak hazten jarraitu du. Gaur egun, bezero guztien % **58,5** erabiltzaile **digitala** da. Produktuak eta zerbitzuak kontratatzeke baliabide estrategikoa dira jadanik Kutxabanken Online banka eta Banka mugikorra, dagoeneko **kontratu guztien % 44** hartzen baitute.

Baliabide Administratuak % 5,2 igo dira


Kutxabankek administratutako bezeroen baliabideak **73.100 milioi** eurora iritsi dira 2022ko lehen hiruhilekoaren amaieran, % **5,2**ko aurrerapena aurreko urtearen aldean.

Hegazkortasuna eta ziurgabetasuna nagusi diren une hauetan, merkatuak eta bezeroek Kutxabanken aurrezki- eta inbertsio-ereduan jarritako konfiantza berretsi dute, **harpidetza garbi gehien izan dituen hirugarren erakunde** gisa jarraitzen baitu, guztira **609 milioi** euroekin, hots, merkatuan sartu diren harpidetza garbi **guztien % 23**. Horrela, funts eta zorro delegatuetan **kudeatutako ondarea % 11,8** handitzea lortu du urtebetean.

Eskuordetutako zorroak % **21** hazi dira, **12.469 milioi** euroraino, eta Taldeak kudeatzen dituen funts guztien % 79 biltzen dute dagoeneko.

Kutxabank Taldeak 21.000 milioi euro baino gehiago ditu gaur egun inbertsio-funtsetan kudeatuta. Merkatuaren ingurunea eta aldakortasun handia gorabehera, bere merkatu-kuota igotzen jarraitu du % **6,75**eraino.

Inbertsio fondoaren merkatu-kuotaren bilakera(%)



Taldeak kudeatutako **pentsio-planen eta BGAEen** portaera ere nabarmentzekoa izan da, % **1,2** hazi baitira urte arteko terminoetan. Kutxabank laugarren Taldea da Espainian aurreikuspen-kudeaketan, eta laugarren tokian dago inbertsio-funtsak, pentsio-planak eta BGAEak kontuan izanda.

Kreditu-inbertsio produktiboak % 6 egin du gora

Handizkako Bankaren jarduerak bultzatuta (% **13,2** egin du aurrera), kreditu-inbertsio produktiboa **46.514 milioi** eurora iritsi da, hau da, % **6**ko hazkundera izan du.

Txikizkako edo **Xehekako Bankan**, hipoteka-ekoizpen berriak Erakundeak ezarritako helburuak gainditu ditu, eta kontsumo-maileguak, berriz, digitu bikoitzean hazi dira.

Hipoteka-mailegu berrien errubrika **1.062 milioi** euroraino hazi da. Kutxabanken xehekako sareak bere merkataritza-jardueraren bilakaera onari eutsi dio ingurune ikaragarri lehiakorrean, eta hipoteka-kuotak merkatu-kuota naturalen gainetik mantentzea lortu du.

Kontsumorako mailegu berrien kontratazioa oso nabarmena izan da, **129 milioi** eurora iritsi baita, eta horrek esan nahi du % **11,6**ko hobekuntza izan dela 2021. urtekoaren aldean, % **12,2**ko aurrerapen nabarmenarekin **Saltegi Kredituan**, bi kasuetan sektorearen batez bestekoaren gainetik, eta kontsumoa uzkuritu den testuinguru batean.

Aseguruen ekarpena % 13,6 handiagoa izan da

Kutxabank Aseguruek urteko lehen hiru hilabeteetan eutsi egin diote beren merkaturatze-jardueran izaten ari diren bilakaera onari, **ekoizpen berriaren hazkunde** handiarekin: guztira **35.000 poliza berri**, 2021eko martxoan baino % **10,2** gehiago.

Negozio berriaren hazkundera aseguru-katalogoko produktu guztietan ikus daiteke, baina bereziki aipagarria da **Etxeko** edo **Bizi Arriskuko** sailetan, % **36,1**eko eta % **14,7**ko gehikuntzekin, hurrenez hurren.

Kutxabank Aseguruaren polizen stocka **927.000**tik gorakoa da, eta jarduera horrek guztira **43,9 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitza-kontura, % **13,6** gehiago.

Hiruhileko ona enpresen negozioan

Merkatuaren ingurune korapilatsua gorabehera, **hiruhileko ona** izan da Kutxabanken enpresetako negozioarentzat, **aktibo finkoaren** fakturazioaren kasuan markak hautsi baitituzte hazkundera, 2021ekoaren aldean **bikoiztu** da.

Kutxabankek enpresa bezeroen finantzaketa-beharrei erantzun die, guztira **1.606 milioi** euroekin, 2021eko lehen hiruhilekoan baino % **21,6** gehiago. Bestalde, **aktibo zirkulatzailea** finantzatzeko eragiketak, enpresa-negozioaren bilakaerarekin zuzenean lotutakoak, % **28** hazi dira, % **29** **deskontu komertziala**, eta % **20** **kanpo-merkataritzako** eragiketen fakturazioa.


Enpresen aldetik **aseguru-eskaerak** % **22**ko hazkundera izan du poliza berrietan, batez ere kreditu-aseguru, aseguru konbinatu eta erantzukizun zibileko aseguruetan.

Berankortasunak hobetzen jarraitzen du

Kutxabank Taldeak zalantzazko aktiboen saldoa murrizten jarraitu du, **30 milioi** euro baino gehiago 2022ko lehen hiruhilekoan; beraz, **911 milioi** eurokoak dira orain.

Ondorioz, eta kreditu-inbertsioaren saldoaren hazkunderarekin batera, berankortasun-ratioa % **1,8**tik behera jaitsi da, Kutxabanken historiako indizerik txikiena. Hobekuntza horrek **oinarrizko 40 puntuko** jaitsiera esan nahi du 12 hilabeteen, eta datu hori oso ona da sektoreko batez bestekoarekin alderatzen badugu, % **4,3**koa izan baitzen otsailean.

COVID neurriek ukituriko zorroei dagokienez, finantza-sektoreak baino berankortasun-tasa apalagoak ditu Kutxabanke, % **3,9** luzamendu-zorroaren kasuan eta % **0,8** abalaturako finantzaketaren kasuan.



Emaitzen kontua

Marjina nagusi guztien bilakaera positiboak Kutxabanken negozio-ereduaren sendotasuna erakusten du, interes-tipoen joera aldaketa nabarmena ikusten den ingurunean.

Banku negozioaren 'core' sarrerek % **7,3ko** hazkunde sendoa izan dute, **296,3 milioi** euro, batez ere **zerbitzuen eta aseguru-jardueraren** sarrerek bultzatuta, % **13,7** hazi baitira.

Interesen Marjinak ere apur bat haztea lortu du, aurreikuspenen gaintetik, **138,2 milioi** eurotan kokatu baita, iaz garai berean baino % **0,8** gehiago.

Datu horiek erakusten dutenez, gaur egun bankuaren oinarrizko negozioaren % **53** zerbitzuen eta aseguruaren sarreraren ekarpenetik dator eta, beraz, interes-marjinaren ekarpena gainditzen dute. gainera, Erakundearen **ustiapen-gastu guztien % 105** estaltzen dute.

Partaidetuen zorroak egin ohi duen ekarpen errepikakorra, dibidenduen eta bazkideen ekarpenak, eta zorraren zorroko beste ezohiko emaitzak **14,4 milioi** eurora iritsi dira.

Honela, **Marjina Gordina 300 milioi** eurotik gora kokatu da, 2021eko lehen hiruhilekoan baino % **10,3** gehiago.

Kutxabanke bere eraginkortasuna hobetzeko eta administrazioko gastuak murrizteko **ahalegin garrantzitsua** egiten jarraitu du, hornidurak indartzen jarraitu duen bitartean.

Ustiapen gastuak % 1,5 hazi dira, eta **Ustiapeneko Marjina 149,9 milioi** eurokoa izan da, iaz baino % 20,9 handiagoa.

Honekin guztiarekin, ex ROF eraginkortasun ratioak hobetzen jarraitu du, % 52,7ra iritsi baita.

Taldeak ezarri ohi dituen zuhurtzia goreneko irizpideen ildotik, eta zalantzazko aktiboen bolumena murrizteaz gain, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen **saneamendu** maila zorrotzari eutsi zaio, atal horretara **56 milioi** euro bideratuta, iazko martxoan baino % 36,9 gehiago.

Emaitzen fiskalitatea kontuan hartuta, Taldearen irabazi bateratua **75,1 milioi** eurora iritsi da, 2021eko epealdi beraren aldean % **21,6** hazita.

Bankuaren kaudimenak ohikoa bezain sendo jarraitzen du, baita 2022ko lehen hiruhilekoan bizi izan den muturreko testuinguruan ere. Honela, %17,5eko CET1 phase-in ratioa du.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2022ko martxoa

Millones de euros	2022ko martxoa	%Δ
Interesen Marjina	138,2	0,8
Zerbitzuen eta aseguruen sarrerak	158,1	13,7
Banka negozioaren core sarrerak	296,3	7,3
Dibidenduak eta baliokidetasunak	4,6	e.a.
ROF	9,8	e.a.
Beste ustiapen emaitzak	-10,0	111,5
Marjina Gordina	300,7	10,3
Ustiapen gastuak	-150,7	1,5
Ustiapen Marjina	149,9	20,9
Saneamenduak eta narriadurak	-56,0	36,9
Beste irabazi eta galerak	11,6	e.a.
Zergen aurreko emaitza	105,5	22,2
Zergak eta bestelakoak	-30,4	23,6
Taldearen emaitza	75,1	21,6